

Herrialde guzietan toki onak badira;
Bainan bihotzak dio: zoaz Eskualduna

ESKUALDUNA

JOURNAL BASQUE-FRANÇAIS HEBDOMADAIRE

ABONNEMENTS

Pays Basque.....	4 fr. par an.
France.....	8 fr. —
Etranger.....	10 fr. —

REDACTION ET ADMINISTRATION : 69, rue Bourgneuf, BAYONNE

S'adresser à l'Administrateur

PUBLICITÉ

Chronique locale.....	1 fr. » la ligne
Reclames.....	0 fr. 60 —
Annouces.....	0 fr. 40 —

INSERTIONS A FORFAIT

Kardinale bat preso

Beljika Malines hiriko archapezpiku Mercier deitxu kardinala ez bai- zik ez dire mintzo zortzi bat egun hontan Europa guziko kazeta gu- zia. — Nolaz? — Alemanek preso hartu dutetakotz eta hanche preso atchiki, bera zagon egoitzaz jabe- turik, hartan.

Bertze apez eta beljikano hobere- netarik hanitz, multzoka, dauzkaten presondegiarik edo zoin batetara ere gogotik eramanen zuten, ez ba- lire beldur izan, mundu katoliko gu- zia jauz-araz.

Alabainan ez bakarrik beljikano gelditzen diren ondaretan, bainan Frantziar, Angletarran, Italian, Ru- sian, Suissan eta Espainian berean kardinale bat zer den eta zontat er- respetu zain zor dakiten guzietan, erisionezo sendimendua achal di- tuztenek eta orok salbaikeria dita- ken handienetarik baitaukate gerla- ri batzu Apezpiku kardinale bati lotzea, preso alchaltzerainokan.

Hartakotz ere, behin, gaichtaginen- tzat egin presondegi batetarik ere- maiteko orde, bere etchean dute, sol- dador inguraturik, hartu eta ezarri preso.

Aleman hoik diren bezalako tzar- rek ere kopetarik aski ez, hobenik ga- he, kardinale bat hiltzeko, egue- tik biharrera; ez eta ere presonde- girat jotatzeko.

Apez choil zontbeit, paso; ba eta ehunka ere apez beljikanoak, zeren guren berri dokakabea maite; zeren etziren aleman urguluntzi bur- rego beltzen aitzinean belhaunikatu nahi berak; ez eta beren arthalde fededuneri etzioten kontseilatuz nehi etsaiaren alde jartzea, herri guzia- ren kontra.

Bainan Apezpiku bat preso eta, gehiago dena, mundu guziko apezpi- kurik handienen buruzagietarik bat ... soberache zitakela, kolpez hor egiteko, dudatu dire alemanak be- rak.

Beraz hortakotz diote bere egoi- tza bilhakarazi presondegi. Zagala han, atheratu gabe; zentinelak bor- than, haren zain.

Hori bera ere ja itsuskeriarik aski bazela, holako gizon bati buruz, gai- tzeke haroa jauzi da, ez Beljikan, ez, bakarrik, bainan berria heda arau Eurapako bazter guzietan, eta ur- runago, Ameriketara harat, giritino fedearen itzalik den, herrietan bar- na. « Non geldituko diren? Ala ez ote duten bada nehon nehor erres- petatuko? »

Izturik berak, urrunegi zoazkele eta ja joanak ere zirela menturaz, darduzatu oire pochi bat, alta ez direlarik jitez dardura errechak.

Zer egin? Uko ala uka? Ez nahiz erran ginezan guk eta gurekilakoek uko egin zutela hor alemanek, ukatu dute beren egitate tzarra: ez duteta preso hartu kardinalea, ez eta gogoan pasatu ere. Fa! ...

Berantegi gezurra. Behin zinez preso hartu eta preso atchiki kardi- nalea, geroztik libro utzi badeute edo uzteketan badira, ezta gutiagor egia, egitate izigarri hortaz hobendun dire- la bertzen gainera.

Ez gogorazte, horrek Alemanian herean; hango katolikoen begietan ere, itsustuko zirela Guillaume eta ha- ren bada guria!

Urguluko itsutuz geroz populu bat, eztaiki zer ari den!

Eta oraino kardinale Mercier ge- lako apezpiku hori bera, gizon ez- lako, karguz kargu, adinez adin, be- ra nor da?

Orotan gizon handi bezen ezti eta zubur Belgika guziaren argi eta on- gi egiletzat, orok ezagutua!

Erresuma guzietarikako bertze kar- dinalok zioten: gerla hau bano le- hen, Eliza katolikoaren ohoratuko aski zela Mercier kardinalea.

Gerla jin da ba? Zeren den hura den bezalako, Erromara bildu kar- dinaletarik zontbeitet Loza eman cio- te Aifa Saindutzat nahiz; nahiz ere oroz batean Beljika dokakabea kon- solatu, hango kardinale onari beren atchikimendua erakutsiz.

Apezpiku lagunek bezen ongi jende cheheak ere aspaldi gogokoa zuen ja, eta hemendik goiti are gogokoago ukanen Buruzagi saindu hori; lan- gile nausten arteko makur batzu ere, duela zontbeit urthe, izan zirelarik han gaindika tokitan, Mercier kar- dinala baitzuten batzuek galdatu eta orok oietzi arartekotzat.

Orai ere konfiantza bera eta er- respetu bera zioten zor orok, ba eta Beljikaren etsai Alemanek berek, berak ez balire diren bezalakoak.

Zer zuten, zer dute kardinale hor- taz erraitekorik? Deus ez, baiarik ere Beljikari atchikia dela bihotz guzi; letra bat egin duela, Eguerriz, elza guzietan irakur-arazteko beren herri- tar dokakaberi bihotzen alchagari; ba eta oroz batean erakaspén, Belji- kano katolikoentzat; zer zuten du- ten arrotzari buruz; eta Janko le- gen, gizon legen arabera, zer egin- bide, gerlako egun-lazgarri hautan.

Egia erranez, ba eta zuzenaren alde mintzatuz, bazakien kardinale kuraia- tsuak zeri zagon; hiltzeko aher zira- rela alemanak bazakien.

Eziaren irrisutan alchatu du boza. Hara non diren Beljikako ich- torio hunkigarrian bi izen haadi el- garri josiak sekulakotz: Albert erre- geren eta Mercier kardinalearen ize- nak. Piba Beljika!

Berriak egunka

Asteart, urtharrilaren 8^{en} can.

Rusoe bi aldiz garhaitu dute etsaia Caucas delako mendi aldean eta Turko- ri preso hartu diote armada (corps d'ar- mee) bat osoa.

Guk Beljikan guretu ditugu erreka zi- lo betarik hemen 200, hancha 300, 400, 300 metre luze, puska batzu; etche zontbeit, Nieuport, St-Georges, bi herrieta- rik hurbil.

Handik eskunchago, kanoi berri bat- zuekin izialdi bat emanik etsaiari, lur zilatzen azkarki ari zena geldi-arazi du- gu lanetik.

Urrunchago ereman dauku jauz-ara- ziz, erreka pozi batzu alemanak, bainan berehala oldar gaitzean berriz hartu diotzagu.

Ardurakoa dugu hori: noiz nahi ere- mu izpika bat har guk etsaiari; gero berriz harek guri hura bera, edo bertze bat aldean; gero guk bati berriz, bertze puska batekin, iduriz behitokiz.

Azken indarra, azken ondorio ona be- thi kasik guk: bainan aldiand guti, eta zer gostarik aldi bakotch!

Astezken, 6^{en} can.

Turko garhaituen zalaparia guzien ga- tik. Rusoe gaina daukate, geroago eta gehiago. Otrichiako lurretarat sartze- kotan dire barnago.

Beljikan, Argonneko aldean galdua ginuen lur zilatu zerranga bat berriz guretu dugu. « Courtehauss » deitxu leize bati hurbil zortzi ehun metre erre- ka jauz-arazi daizkote, eta erdiak ber- riz antolaturik gure soldadoz bethe.

« Le Prêtre » deitxu oihan bat bada, Pont-a-Mousson hiritik auzo, maiz aiphu dena gerla hontan, gudu onik ikusten duela; han oraino ere zafrazten du- gula etsaia ez dugu lehen aldia. Puska batez aitzinatutik gaude oraino hontan.

Thann hiriko auzo mendi batean Alsac- en, mendiari goiti bide erditan, hartu daukute lur zilatu zati bat lehenago ere heien eskuko izana.

Mendi kaskoa eta bertze ingurune gu- zia bethi gure dago.

Thann delako hiriaren gobernadore soldado aitzindaria Detroyat baiones ko- mendanta da; eta zibileko juje kargua daukana ere baiones jaun bat, Lalanne deitua.

Ortzequn, 7^{an}

Voeure deitxu eskualdean eta gerlaren lehen egunetan hartu baikinuen bereha- la Alsaceko hiri bat, Altkirch, eta gero hustu behar ukhan, ezker itsas alderat laster egiteko, hango armadari hel, ha- rateko bidean aitzinatuz goazi.

Altkirch hiritik lau kilometretan den oihan batez nausitu gira.

Gorago aipatu Thann hiriko ospitalea kanoi ukaldika, guti edo aski, andeatu dauku etsaiak. Ez, nahi zuten bezenbat, gure artilleriak harena ichil-arazi baitu laster; gure kanoi handiek haren han- diak.

Hori da bihotz-alchagari; kanoi han- diz handi ere, nausitzen ari gitzakola etsaiari.

Ortizirale, 8^{an}.

Thann hiriko ospitaleari da oraino ere aher alemana, tiro eta tiro.

Eriak eta kolpatuak ez gehiago urrika- ri! Beren soldado minhartuetarik bai- tuzketela dakiten ospitaleri ari zaitzu, diren bezalakoak, bardin aitzina, tiroka!

Arras hiriko aldean zilo erreka batzu behar ukan ditugi, etsaiak bortchatu gabe, gabaurek gure baitarik, hustu, zeren eta gizonak lohipen sartzera bait- zoazin eta inthan, sorbaldetaraino. Han etzizakzen gehiago bizi.

Aisne ur handiaren hegieta, etsaiaren artilleriak behin lanak eman dauku, bainan arrazaldetokotz, mutu geldi-arazia ginuen, ihardetsiz azkarki.

Reims-eko aldean, Betheny eta Prunay bi herrien artean, partida bat errabiatua eginik gaude. Guk gaitze guti; etsaiak hilak trumilka.

Argonne erreka batzu jauz-arazi dau- kute; ba uko egin ere, hancha harat, on bazeie; gure baionetak ez dire alfer egon.

Larumbat, 9^{an}

Beljikan Ypres, Frantziar Arras eta A- mien hirien inguruetan, gure artilleriak uko egin-arazi dio etsaiarenari.

Artilleriari esker, eremn puska batez jabetu gira, eta presuner parrasta bat egin dugu.

Cernay-ko inguruan, herriehka bat galdu dugu, bainan etsaiari gizontze gaitza hil diogu.

Ederki gostarik gaude zontbeit metre lur.

Iyande, 10^{ean}

Artilleria artilleriaren kontra izigar- riko furian; alzo galdu errekek egun ezin bere ditazkela etsaiak indar guzia emanik ere.

Hemen deus ez dezakenean egin, hiri bati oldartzen da urrunera kanoi ukal- dika; egun Soisson en aldi zen.

Beren etrabian obus leher eta zapart chahutu dute; gehienak alferretan. Bu- rritu buru, sail guzian iharduki diotegu.

Negu bethean, gau eta egun hola bizi- zea zerbeit da. Irauden dutenek ukhanen dute sarrichago zer konda.

Astelehen 11^{an}

Bertze egunetan baino ezlichago, dau- de bi aldatarik kanoiak. Gurek hein bat azkarchago; begi kolpea biziki chuchen.

Erreka zilo bat kendu diotegu, ez er- rechki.

Bortz ehun metreren irabatzia guk, mendiehka bat osoa, guretzen dugula oraikotik alderat balinba!

Tresnerientzat etsaiak egin atherbe- gehienak chehakutzen daizkote guk kanoi ukaldika.

Oldar itsusian heldu-zauku alemanak aldi bakotch, egun hautan, gainera; bi batallonetaraino aldiand.

Ba debruen muturrekoekin gibelerat itzultzen ere, hilik lurrerat ez doazin itzulipurdika.

Argonne zalaparta gutichago, « Meuse et Moelle » ko aldean ezti hil batean gizonak bi aldetarik.

« Vosges » mendietan elhurra jauts abala ari da.

Thann-eko hiriari noiztenka etsaiak obus bakar batzu igortzen daizko: ez min handi egitekorik.

Noiz arte othe da joan behar gerla hau hola, bi aldetarik tresna eta gizon higa- gari?

Lotsatzeko litake, Rusoa eta Anglesa, zoin bere aldetik ez balauzku ja lagun- tzen ari; hek eta guhaur ere puskeria bil- tzen, metatzen azkarki!...

LETRA

Bi hitzez nahi dugu hemen berech eman Mercier kardinala aleman bur- regoekoraino hil ez dituzten Beljikano elizetan irakurtzeko egin Letra ederrean zer dion.

Dio: Beljikanoak beren buruen jabe direla bethi, eta ez heien jabe arrotzak. Gerla hastean zituzten dretcho berak, bu- ruzagi zuten berak dituztela bethi, eta ukanen, egun bezala bihar.

Eginbide berak ere bethi.

Bethi zor diotela amodio, atchikimen- du, errespetu eta obediencia Belji- kanoek, beren Erregeri, beren Goberna- mentuari, beren Ministro, Deputatu legez ko gizon buruzagieri.

Beljikanoen nauti Belgikanoak, lehen bezala orai, eta gero.

Bakarrik beren onetan eta Beljikaren onetan ongi eginen dutela soldado ez di- renek hitzemana balinbadute Beljikaren etsai arrotzari, soldado ez direno, armarik ez erabiltzea, ez tiro egitea, geldirik ja- saitea lephotik emana dioten uztarria; ez ukanik ere hitzemana geldi egoitea, hobe duketela soldado ez direnek, ez et- saienarik gatik bainan beren gatik, elgar- ren gatik, uztar gerla gerlarientzat; ber- tzenaz sarraskir, kizigarrieneri dagozila, ikusiak ikusi.

Soldadoek, erresuma adichkidek Jain- koaren dutela libratuko Beljika, dio kardinal Mercier, egundaino nehon izan den arthalde dokakabeneran artzain onak.

Artzain onak bere arthaldearentzat emaiten du bere bizia. Hunek bazakien, diogu berriz ere, libertatea eta bizia bera, odolaren azken chortaraino gosta zakio- kela Letra hiri. Eginbideari uko egin zezoken, bere buruaz baiarik ez halitz or- hoitu. Ez du egin. Biba hura.

Eliza guzietan Eguerriz irakurtzekoa zen Mercier kardinalearen Letra. Zer egin dute Alemanak?

Behinik behin kardinalea bere etchean preso hetsirik ezarri, non Eguerriz An- pers hiriko eliza batean meza-nausiaren emaiter ezin joan baita, etsaiak ez utzi- rik.

Harrapaka gero kardinalearen Letra elizetan irakurtzeko aukaten paper gu- zia eskuratu nahiz. Bazter guziak jo daitzute; erretor-etche guziak iltu; elizak, sakristia zokoak; predikalkirat apezik igaiterat ez utzi, zoroizki miatu gabe, bazutenaz amentch sakelan edo besapean gordeirik Letra hura.

Ja iganik irakurtzen hasiak zirenak bortchaz jauts arazi dituzte. Irakurtze- ko orde mintzatu direnak mehatchatu dituzte garrazki.

Elizetan meza nausirat jinak ikusteko omen ziren aleman soldado aitzindariak apezan alkitian jarriak ororen izituko.

Apez hanitz preso hartu dituzte. Nork daki zontbat hiri, nahi zuten lekuetarik eremanik.

Zer nahitako aher dire, ja, orai baino lehen, ehun eta berregoitia, hamar apez beljikano tirokahi dituzten alimale tzar- rak!

Ederrikjakinen da gerla ondoan. Jaki- nen sekulan oro, sobera baita.

Barneko ospitaletan

Mintza giten lehenik eriez.

Han-hemenka berregoi egunetako su- khar, fièvre typhoide delakoa lotua dute zontbeitak. Lehenbiziko bi hilabethetan gerlarat joan zirenetarik nehor etzuten chertatu ahal ukan gaitz horri buruz; cherto gerrik aski etzen alabainan oraino eginik. Geroztik hant, joan behar di- ren guziak emana zeie chertoa kasernan, lau andanaz, astein bat, sorbaldak gibe- letik; hura hartaz gero, gaitzak ez bai- tu gehiago hetan lotkari. Cherto hor- ten eskasian hil izan da gizon multzoño bat.

Bakar zontbeit, arras guti, gaitzen da tetanos deitxu gaitz itsusiarekin. Badaki- zue hau sartzen dela zauri zokodun, lur- rak guti edo aski zikinduetarik barna, eta gizona laster baderamala, hesola be- zala gogortu endoan. Humentzat ere ba- zen chertoa, aspaldi danik ezagutua, bai- nan ondar hiru hilabete hotan bakarrik da agertu aski, beharra zuten kolpatu gu- ziei emaiteko. Gaitz hori sarthua zake- ten zaldi batzen odoletik, da atheraia delako chertoa.

Grippaz dira joak gainerateko eri ge- hienak, ardura darrazkon herresteriekin, hala nola eztl eta sukhar; batzuetan bederatz-urumekoa (pneumonie), mai- zenik akidura bat, askotan lotsagarria.

Erromatizadun andana bat ere bada, ez oro zinezkoak orobat; ezen junta guti da ikusten hanturik. Bizkitartean, ha- ragietako erromatizma baditeke, jabea luzaz gogorturik daukena, ez delakotz

senda errech, non ez duten Akizeko urek barretzen.

Alpha ditzagun orai zauriuk.

Hok berech dira ospitale berean, edo ospitalez barech. Batzuek badute bur- din pozi zontbeit kokatua nunbait; ber- tze ez dute herecha baiarik.

Azken hok lotzea baiarik ez dute. Ez uste ukan hargatik berehala sendo dire- la; haragiak nahi du bere epeha berriz osatzeko, hanitzek uste baino epeha la- zagoa; bala batek zilatu bideak galde- giten du bana bertze hilabete bat, be- thetzeko. Eta biziki gehiago, baldin ba- lak berekin sarthu bazuen eta mamie- tan utzi porroskeria zerbeit, hala nola hezur hautsi izpika, soineko puska, har- ri kichkor. Alzerik ez du laket bere bai- than gure haragiak; materieta igortzen du kamporat, edo operazionez zako be- har kendu.

Hortakotz dute bada behar operatu- rik izan, burdinkiz zerbeit berekin dau- katenek. Rayons X direlakoekin iker- tzen ohi dituzte lehenik, — nuntzu du- keten beren elhorria, — baduketenez bat baino gehiago, — biziarentzat lanjerik gebe ken dezoketenez.

Mamian kolpatuak, ez balin bada zain churi (nerf) edo zainhart (tendon) bat izana andeaturik, sendatzen dira arunt, den gutieneko ondorio gaichtorik gabe, bertzenaz, guti edo aski ezinduko bara- tzen, oin bat osoa edo erhi choil bat lo, zain hantzia zeren gider baitzen ere, eta arabera. Aipatu zainak arthar- kin josit, josturak hartzen badu, berriz has ditazke beren lanari; bainan bakan gertatzen dena da eta, gertatzen denean ere, atcas luzaz, noizbait.

Batzutan oio ala alde orotarot dera- maten zain edo kanalak dira izan bakar- rik behartuak. Uste gabeen zart egiten dute odola zurristan dariatela. Este- katu behar bi buruz, zauriaren barnean. Medikuntzat tarrapata gaichtos, bai- nan atseginezko saria ondolik ekartzen deiena bethi.

Mamietako zauri hoitz bertzerik di- ra zorigaitzez hezurretakoak, guzi zir- zikatutak direlarik. Izpika guziak khen- du behar orduan, artharekin; bertzenaz, sendatzerik ez. Izpika hek atheraz ge- roz, hezurra berriz oso ditake zontbeit zentimetraren luzetasunean, inguratzen duen telatik sortzen ohi baita. Hau ande- atua balin bada haatik, eta guzi z- teldua, gorachago danik membroa motz.

Hezur juntentzat halaber: arras neke sendatzea, balaz andeaturik izan balin badira edo gaizkundurik egonak. Sor- baldak, ukondoa, esku-mothurra bethie- rekotz gogorturik badagozke; belhaunak gorachagotik moztua du galdegiten ar- dura.

Hoik guziak hola, kolpatuetan hamar- retarik zazpi aitzinean bezain on jartzen dira, hamarretarik badirelaketz zazpi balek toki sorhaian hunkiak.

Duela hirueta hogoi urthe etzen hoin- beche sendatze ikusten, mamietako zai- ridunetan ere, rayons X direlakoekin etzi- relaketz oraino ezagutua, ez eta lo- thuren garbitasun baitezpadakoa.

Garbitasunak du beraitzen kolpatu ge- hienar bizia, zain zontbeit lokharturik edo, junta bat bethierekotz gogorturik geldi- tzen bazazkote ere.

Deus handirik ez dezalate gure bai- than berriturik ezar oraino chirurjanoek, duela bi mila urtheok baino gehiago; bainan, lehengoek ez bezala, zauriak eta heien ondolik odola, andeatzetik be- ra ditazkete.

(Ondarra helduden ortiziralan)

Gerlako Berrichkak

Lohia

Uri, haize, lohi. Bazterrak, deskan- tsuan daude, oro tzar hunk dirau no.

Urthatsak zalhu behar dire, gerla hun- tan zerbeit egin nahi balinbada. Ez du beraz balio abiatzea, lurrean bi zeha barna sarturik gelditzeko bidean.

Bertzalde, soldadaz bertzerik ere ba- da. Zaldi, karrosa, kanoi eta bertze hoitarik bazterrak betheak dire. Nola jarriak-araz? Hala hola ere badute lanik aski, zaldi gaizkoek, egun oroz hor bai- tabiltza, lohi estaliak, bethi bide bere- tan, soldadoren jatekoa eta kanoinen ha- zkurria zoin bere tokietarat hel-arazteko.

Ene iduriko, ez da gauza handirik ge- rthaturen negu ustel hau iragan artio. Bi hegaletan egin dugu azken egun hau- tan zenbeit urhats. Bizpahiru herri ge- hiago gure eskuetan dauzkagu etsai- aren aztaparetarik etchez etche gurelu- rik.

Oldar handiagokoaren egiteko, aroa dugu gehienik eskas.

Kanoi handiak

Hemengo haro guzia kanoi handien orroa. Bethi ari dire burrunban, gau ala egun. Lan guzia heiek, Soldadoa bethi lurpean.

Alamanek arrapostua bethi galdearen arabera. Beren kanoi handiekin ari zaizkigu hek ere; gure tresna berri horiek ez dituzte gustukoak, eta nehola ez detzakete jasan. Kanoi kanoiari buruz, batek bertzea chehatu beharrez. Bainan bethi kasik guk dugu gaine hartzen.

Gerlaren hastean ez ginen kanoi hoi-tarik hanbat. Bizpahiru tokitan ginen- tuen zenbeit bakhar. Geroztik ikusi cui- gu gure huts handia.

Orai badituga bazter guzietan, eta indar handikoak.

Solasean ari nintzen atzo gara ba- tean, gerla tokiarene hegi hegian. Handik harat ez dugu bertze burdin biderik gu- re eskuko. Trein bat jin berria zen Pa- rise-ko aldetik. Zer duzue barne hor- tan, diot galdatzan artilleri bati — He- men? Kanoi handien jatekoak! — Zer? Den guzia kanoi handientzat? Eta ber- tze tipik hek goserik utzi beharrik di- tutzue? — Badute heiek ere asetzeko, aspaldin bildua. Orain handien aldi!

Hanbertzarenekin, gure gibekeko men- dichka hegal batean bospasei kanoi ha- si ziren orroaz. Ezker eta eskuin bertze batzu, entzun ahal urrun. Gaar ere burrunba gaitza zuten. Orain berriz ichi- du dire, sarrihago ber kantari lotzeko.

Kolpatu gutiagi

Gero ta kolpatu gutiagi dugu, bere- ziki gure eskualdean. Eskualdun gehie- nak hemen dire, eta nahiz hastean foku gaichtoak ziren hauk oro, orai nehan baino kolpatu gutiagi dugu.

Baziren hastean, hemen berean, zor- tzi ospitale gure eskuko. Hetarik bia joan dire bertze armada batetarak; bertze bia hemen daude beren gize- kin, osoki hutsak, eri eta kolpatu gu- zia bertze batzuek harturik. Bertze os- pitaletan ohe hanitz ikusi ditut huts- tuak.

Erretreta

Soldadoentzat othoitz hanitz egiten omen da herrietan.

Soldadoak berak zintzuket behar i- kusi othoitzean. Eguberri ondoko egu- netan, Pau-eko errechimeduek erret- reta bat ukan du, beren pausoko demoran: prediku, kofesio, komunio- ne, hiru egunez.

Eskualdun hanitz. Erretretaren egi- lea bera aphez Eskualdun bat, jenera- laren baimenarekin bere lanean ari de- na, eta oraino ariko, Jainkoak nahi ba- du.

Kantu ederrak bethi bezala, eskuar- az eta frantsesez, guzien gustuko.

Bazkari on bat

Eguberri eta urthatez erdi phestan ginen. Etcheil ukhanen gainerat go- bernamenduak ere egin dauku bere ikus- ; tate. Champagna-ko arnoa ere bagu- nen orok. Elzen lehen mota, enea se- gurik; bainan plazer egiteko doa bazen.

Chingar puska bana, bi sagar, zigaro eta omore ona Gaineratikoz zerak ez ditut aipatzen. Egun guzietakoak dire Asetzekoa badugu bethi. Herriko aire eskas.

Tirari onak

Gerla huntan lan handia egin deza- ke tirari onak.

Alamanek bazituzten bilduak tropa- ka beren tirari hobereenarekin, gure aint- zindarien hiltzeko. Berehiz ari ziren ti- roka, ihizi baliosenari ihiztari hobere- nak, odol hotzean.

Guk ere baditugu tirari hautak, gero ta gehiago. Aintzin hortan batek egin du balentria bat ezin sinhetia.

Soldado Alaman bat bere zihotik ja- li da, Frantsesen aintzina, bi ematek- ki sahetsen. Bospasei ehun metre bazi- tuen, Frantsesetarak hiltzeko.

Tokiaren berri jakin nahi zuten, hir- riskurik gabe, eta hartako zituen bi emate hek, Frantsesek ez zezaten egin tiro gainerat.

Frantses batek hartzen du bere chi- chpa; minota erdi batez bere gizona chuchen begiztatzen, eta tiro batez ho- tatzen lurrerat. Ematek ere biaz ero- ri ziren, izialdurarekin, bainan berehala chutitu. Gizona zen bakarrik kalitua, hil gogor.

Muslariak

Ez dezaket gehiago deus ezar behar bezala paperean; guti balinbada guti har azu den bezala, eta batkhal.

Ari zaizkit hemen sahetsen lau Es- kualdun « musean » karta espainlekin. « Biak inbido eta pareak bal » Hauche, dire oihaak! Fantesia gorrian dire, eta beharriak aicean qeramazkate beren in- bido debruekin.

Nik ere gogoa horietan, jokoari so eta so.

Gaicho kartak! Ukhan berriak nin- tuen eta jadanik piltzartuak! Ez niz batere urguluz mintzo. Norbeitik ber- tze pare bat igor baleza, balukete be- girtatel

J. S. P.

Bertze batek

Gerla tokitik, urtharilaren 9an

Adichidea,

Badakizu ez dela errech orai berri zerbeitzen hatzemaitea horrat igortzeko. Gure erreketan hemen gaude, iduriz hein berean, bainan batere lotsatu gabe, egun eta gau, tiroka, etsaiari zer min egiten diogun ikusi gabe askotan.

Lo gatisiko eginek ere, ez gare hain urrikaltzekoak uste duzen bezen urri- kaltzekoak (bederen). Hotzak jasan di- tazke, ez dugu hanbat nekatzetik eta askitito jaten dugu.

Etcheko eta herriko mina ez baginu, ez ginuke erraitekorik!

Ah, hori ba, badugul! Eta hameka al- diz elgarri erraiten dugu: « Zer diote othe etchean, zertan othe dire gure bu- rhuoak, gure emateak, gure haur- rak? »

Baginaki gurek ez dutela sofitzen gu hemen izaiteaz, nola arin gintazken! Horko minak gaitu higatzen.

Adichidea, othoi hori errazu: « Es- kualdun » : guk ez dugula bertze mi- nik herrikoak baizik.

Gerla hastean Jainkoari bihotzak al- tchatu ginituen, eta bethi hari gaude, kolpeez eta heriotzeaz beraz kasik or- hoitu gabe.

Ezen zer dire kolpeak eta zer da he- riotzea bera, gero munduak izanen duen bake gozoaren aldean?

Guk hogoi, hogoi ta hamar, berrogoi urthe iragan ditugu ikhara gorrian, ger- la hunen beldurrarekin. Hori ez da bi- zitzea.

Bizitzen hasi ginen egiazki aboz- tuan, Alemana, mundua beretu nahiz hasi zelarik karraskan. Nausitu balitz, akhabo ginen; akhabo baka, akhabo erlisioneak, akhabo denak. sekulako gal- dia ginen.

Bainan kukuak makur jo dio eiki. Lehen uztarrak handiskoak eman badi- tu, iduri du orai ahalak gutitu zaizkola eta ez dugu, hastean nion bezala, min kandirik, hari buru egiteko.

Herria dagola trankil.

Soldadoak, harma eskuan, hemen gau- de zuen zaintzeko. Eta laster ikusiko da- zue zer bihotzaren jabe garen oraino. Alemanak du emanen amor, ez gik.

Othoi, ez lotsa hor, gu hemen baino gehiago. Altxa bihotzak! Egun eder- rak ethorriko dire eta gure ondokoak baliatuko guk irabazi bakeaz.

Eta gutarik zenbeit herri, galditzen badire, odola bakearentzat emaitako, Jainkoak har ditzala!

ZERBITZARI. A

LAPURDI

MENDIONDO

Simon Durruty apez, Lekorneko Jaun Erretora heriotze sapituak jo du hila- bethe hunen hamar, igande arratsal- dean bere elizan ari zelarik bezperen emaiten.

Nahiz ez eri, ez omen zen soberarik ontsa; bainan ez berak, ez nehorik ez zuten hein hortan zelarik ueste.

Ez baitire guti hartu oro, Lekondar bezpera hoitan zirenak, ikusi dutenaren erretora, bendizioa aitzineko Orazio- nea-ren kantatzerako kenkan, chantreak Panen de celo emaiten, hil hotz eror- tzen.

Harritu gira guhaur ere, auzo herri- ko adichide batek ekarri dauklark hil berri hori bihamun goizean.

Apez ala edo zoin, fededun hobere- nak betaf, urrikaltzeko dire hola doa- zinean munda huntarik bertzerat bet- betan, hiltzeari oharlu gabe.

Egundaino ez diotegu onetsi — alta zontzei erraiten entzunik gaudena — hiltzerik hoberean, dohatsuen, zitzaioke- tela supituki joate hori, ez nehoko minik, ez herioaren izialdurarik, deus- ere gabe.

Bihotza geldu, pilpil batetarik ber- tzean, begiak hets, eta fini.

Bethi erran dugu giristino zentzu oso- ko, chucheneoek orok erranen dautzue- tena: ez dela hori gauzak fedezko begiz ikustea.

Fedeak erakutsia dugu, heriotzerik hoberean dela hiltzerakoan aima Jain- koarekin hobekienik duenarena. Eta hortako segurtamend handiena zerk de- zoke gutarik bakotchari eman, baizik ere azken Sakramenduen hartzeak, giris- tineok giristinoki, apezek apezki?

Elizan hiltzea, Sakramenda Saindua- ren aitzinean ahuspez, bere arthaldeari Ostiaren benedizioa emaiterakoan, soldadoa Herriarentzat gerla zuten ba- tean hiltzea bezala, eder da; ontsa zau- ku eta hala da. Bainan apez ala soldado, ala nor nahi-rentzat, gero hiltzerakoan, ahal bada nehore, kofesio on bat, ko- munione on bat, Anontzio Saindua, Eli- zak lanjeran direnentzat daukan lagun- tzarik hoberean.

Hortakotz dire zoro batzu eta, fun- tsera eta bihotz gabe batzu beren etia- rik apez egin ahalaz urrun dauka- nak, ezagutza galduche arte, ez nahiz eria izitu!

Zerk behar luke fede zinezko-dun bat — beretzat ala bertzentzat, eta bereziki maitenik dituenentzat — hala izitu, no- la Sakramendurik batere gabe edo be- rantegi, balikunbale, harturik hiltzeak?

Hortakotz apez guziak, eta ez gu- tienik beren eta bertzen arimez grifa- tsuenak dituzue ikusiko jarraikiak be- ren arthaldetik bat ez uztuari munda huntarik bertzerat joaki « elizakoak » hartu gabe, orda deno.

Hetarik zela gure adichide Lekorne- ko erretor zena, norke ez daut onetsiko? Bertzentzat hain on eta hain behar laguntza beretzat ere bihotz guziz na- hiko zuela hiltzerakoan, ez dugu zeren dudu.

Jainkoak ez du nahi ukan; egin bedi haren borondateal

Bainan hilaren adichideentzat — eta zertako, ez daut erianen etsai zontzei- ntzat ere? arrazoin gehiago haren ari- maz orhoitzeko Jainkoaren aitzinean.

Garaitikoetan ez dugu zeren sar.

Sortzetikako jitea ekartzen dugu orok orotan bethi; gizeonekin bizitzeak on- tza jite hura batzuetan; bertzetan, gaiz- kondua gutichago edo gehichago.

Guk hemen elgar baino hanitzek ho- bekijutatuko gihu egun batez oro. Gai- neko Harek. Gutaz eta bertzez, gauden Hari.

•

Simon Durruty apez zenak 62 urthe

zituén. Apezluz geroz egona zen Lario soroko Semenarioan eskolemaile, hameka urthe; Lukuzen erretor, urthe bat; Domi- chenen, haur urthe; Itxasun, hamar; Lekornen zela, sei urthe zituén.

Jainko onak berekin duela zerbitzari chede oneko!

Bachenabarre

DONIANE-GARAZI

Gerthakaribat ikaragarria, Doniane- tik Craizerako burdin-bildean joan den igande goizean hogoi bat kolpatu, tiru hil jo, gehaigo ez bada, naski.

Sei oronetan abiatu da Donianet k Craizerako treina. Aro gaichtoa, ilhun kuku.

Garatik kilometre bat egin duten- ko, kaskako bat izigarria senditzen dute treinean zoazinek.

Zer othe zen, behatzeko demborarik ere gabe, chahu ziren dohakabeak, kasik betbetan. Ur hanturik lerratua zen eta bidearen gainerat toria, erdiz erdi, mendi hegala lur puska bat gailza.

Harri eta luc, nahas.

Meta uhantu saltatu aulimala har- tan sarthu da locomotive, treinarean eremai- le suzko tresna dorpea chimenoa doi-doi- doi bakarrik ageri gainera!o guzia lur- pean ithoa bezala.

Treinelo implegatuez bertzelde omen ziren joaki, hogoi bat soldado eta ber- tze gizon bakar batzu; emazte zontzei ere ba.

Locomotive delakoa lur lohi, ahitu sal- tsaren erdian morteropean bezala gal- ditzearekin, etzezetaren ondokitako lehen bagonek bertzeik egin, baizik ere batzuek bertzen gainera jauzi, gainez gain.

Puskatuak, chirchikatuak zaiden ba- gonak; heien azpitik helka, heiaigo, raka, matrumaz kolpatuak.

Han zirenetarik baten ganik omen di- re chehetasun hauk, bera biziki arinki delakotz hunkitua, mintzoa libro baitu; bertzen berrien emaiteko.

Gau beltza zelarik oraino, seiak on- dochean, fritsik ez ageri, ez omen ziren oihauek eta hel nurrak lagzarriago bai- zik.

Uria barrustan ari, bizpahirulau gizon baitzuten omen, min hanbatekoak etzi- tenak, ihauzka, eskuz hunkika, badoaz kolpatuen laguntzera; bainan deus ezin ez ikus, ez hunki, ez hatzeman boska- da ikaragarri hartan.

Emeki emeki, argi artatzearekin ikus- ten dituzte bagon uratu, hantisi arteke- tarik keinuka, galdeka, othoizka, buru eska, beso, zango batzu.

Chihauk behin ichilducherik, beriz, hasten dire lagzarriago. Ur handia badoa barrumban, lur gorritz hantua.

Burdin-bidearen erdian bagon cheha- tuen puskak, oro lohi. Heien gainean eta artetan gizon dahakabe, soldado batzu, odoletan.

Noizepit azkenean, huna laguntzak heldu Donianetik. aitzur eta pala, an- gaila, brankar, altzapen, holakoetako tresneria ahal direnekin.

Loth lanari!

Locomotive-aren gainean huna lohi- z emokatuak beren tokian hil eta etzanak mekaniziena eta chauffeur delakoa; hau, itchura guzien arabera, ur erakitu un- tziaren urrakotarik athera lankoak ego- sia bizirik.

Treinarean gidari buruzagia ere kol- patu, hamar bat soldado kolpatu; bat etzitzeko.

Bi, hiru edo lau hil. Iku-gari bat, lastura emaiteko: huna gizon hau ba- gon baten gain hegitik bi zangoak dilin- dan, begitate guzia gain behera urratua; moztua sudarra. Hel dazkion oiha gari- tean zaurietarik burrustan odola dro- te.

Medikuek zango edo beso bat edo bi moztu behar ukan dituzte.

Zeren edo noren gain izigarriketia ho- ri? Mendietako eta ur hegitako lurraren atchikitze arbolak hilik edo bizi moztu- rik ereman dituztelakotz tancerietarat eta ordainik ez landatu, omen da lurra noiz nahi lerratzin, euriite handiez.

Baditake. Anhartean hor hil diren do- hakabeenak egin du. Bat Irissartarra zen omen, zazpi haurren aita, hila. Makar bat eta Louhosoar bat; handizki kolpa- tuak, bizi ala hil, ez dakigu chuchen, hi- ru edo lau hil nonbeiko badirela bai- zik.

Cro ez bada, gehienak, gerla delakotz omen ziren soldado alchatu briariak, Donianetik etcherat joaki, joan-jin.

Urrikalgarri betak eta familiak!

Ziberoan

ATHARRATZE

Monsieur Oyhesqui, maire de Tardets, greffier de justice de paix, veut clore une discussion dont il n'espere plus aucun avantage. Car les temps sont ainsi changés, qu'on n'ose plus se vanter d'un excès de zèle ni se prévaloir devant ses chefs d'une besogne douteuse.

Il s'agissait, au 9 septembre (date es- camotée par Monsieur Oyhesqui) de pour- voir, pour le service des assistés et des administrations, au remplacement de Monsieur Mignacabail mobilisé. Monsieur le Sous-Préfet demande à Monsieur Oyhesqui de présenter Monsieur Etchandy déjà commissaire vaccinateur.

Monsieur le Préfet, de son côté, ordonne tout simplement, de s'adresser au méde- cin le plus proche.

Monsieur Etchandy, dument pressen-

ti, refuse. Que faire? Monsieur Oyhesqui n'est pas embarrassé. Il ne cherche pas à côté; il va jusqu'à Mauléon et déniché un Señor Iglésias, aujourd'hui disparu, médecin-fantôme dont notre maire pro- mène encore, assez naïvement, une car- te de visite. Voilà celui qui, de Mauléon, so- gnera les assistés de Tardets. De cette façon Monsieur Oyhesqui satisfait ses rancœurs personnelles, quelques petites haines envahissantes, et sacrifie délibé- rément l'intérêt de ses administrés.

Quant à moi, et s'il y a un doute li- dessus j'en appelle au témoignage de Monsieur le Sous-Préfet lui-même, je n'ai pas eu, avant le 9 Septembre, (date es- camotée par Monsieur Oyhesqui) à me démettre de fonctions dont je n'au- vais pas été chargé, pas plus qu'à re- fuser un poste qui ne m'avait pas été of- fert. C'est après le 9 Septembre, (date es- camotée par Monsieur Oyhesqui) que, se conformant aux ordres de l'ad- ministration préfectorale, quelques mai- res se sont mis en rapport avec moi. J'ai immédiatement accepté leurs proposi- tions; j'aurais accepté de même celle du maire de Tardets.

Faut-il insister davantage, je suis prêt à le faire. Sans doute, Monsieur Oyhesqui est-il comme les vieux tapis qu'il faut secouer longuement pour leur res- tituer leurs beautés naturelles.

A. C.

ZER ETA ZER

EHORZTE HITSA

Frantzia behearen hil da eta ehortzi joan den astean apez bat ontsa hiski.

Herriko erretor chaharra zen. Ingurue- tako erretor bikari guziak, hiltzeko aski hurbil zitazkenak oro, gerlarat joanak, edo eri.

Kofesatzerat, anontziazterat ezin joan zaio bat, hiltzera zoen erretor doha- kabeari. Hilabete bat omen zuen azken komunioa ereman ziola urrundarik ethorri apez adichide batek.

Geroztik hnat, ez eta agoniako oren latzetan ere, apez lagunik hurbildu gabe bizi izan da eta hil. Eta ehortzi.

Elizako gelari « andere serorak » au- zoko zontzei gizon bakar, emazte eta baur multcho batinguruan, egin diozka ahal zituen okreak; elizako sar-jalia; othotzak liburutik nolapeit han erran. Meza orde arrosariotik hiru hamar- reko. De profundis eta gochoki nigar, gaicho apezari.

Gerla madarikatu hunek irauten badu luzaz, izanen da holako!

AITA SAINDUA

Galde bat egin diote Aita Sainduak gerla izgarri hantari ari diren erresu- metako buruzagieri, nehor berezi gabe: gure Poincaré Prezidentak Alemaniako Emperadoreak, Rujiakoak, Ctrichiakoak, Angletarrak Erregek, Beljikiakoak eta bertze, handi ala ttipi, orok-orok ukan dute galde bera: elgarren soldado kol- patu edo eri presuner, nolapeit gerla- ko gehiago on izanen ez direnak, hala nola beso edo zango moztuak, itz ditza- tela libro, zoin beren herri, eta etche- tarat itzel ditzen; truka ditazela kitola; bardin ez dutela heiek preso atchikiz batzuek ez bertzek deus irabazten; ez direnaz geroz gehiago ahaletan, gerla- ratzelo; galtzen ba izaitokotz, alfer- tan hazi behar elgarrenak, eta arthatu. Kolpatu dohakabek aldiz badutela dre- tchoa, sekulakotz embalier galditzen di- renaz geroz, etcherat joaiteko bederen ukan dezaten kontsolamendua.

Heien etcheoek ere, burhaso, emazte, haurride eta ahaide guziek ja badutela orok aski oraidanik heien berri jakitea, nola diren sekulako zango edo beso motch, okher edo nolapeit embalier; frango lanko, ez berenaren egiteko on- halare eta hartakotz, nigar saminku egi- nen balinbadute ere, nolapeit ezituko dela heien bihotzmina, beren hek bede- ren bizirik ikusiz etcherat heldu.

Galde zuzanagorik, bihotz hunkigar- riagorik etzeoketen egi Aita Sainduak egun hits hautan gerlatari aitzindari horier Aita Sainduak.

Orok ihardetsi diote, onhartzen du- tela; hortaratzeko ahal guzia eginen du- tela. Orok eskerrak Aita Saindu onari, zeren zaion gogoratu urrikalmenduzko galde hori.

Gauden ondorioaren beha.

Apezak chunka, milaka gerlan beren herritarrek in dolaren ichurtzekotan Fran- tziarentzat apezpiku beljikan kardi- nale zinezko artzain on Mercier delakoa holetan biziaren hirriskuan mintzaturik goraki, zuzenaren alde, preso hartua be- re etchean. Aita Saindua bera gure- zat othoitzean egun guziek Jainkoari; erresumetako buruzagier galdeka, kol- patu dohakaben alde... eta guk behar aditu frantses koska tzar, eskualdun egosi gezurti batzu, bat erran daukute- naz aste huntan hemen Baionan mintzo zena, zer nahi zetasala, Aita Saindua- ren, Apezpikuen, apezon kontra: baizik eta Aita Sainduak bi miliar (!!!) ema- nak diozka Gaillaumeri gure garbai- tze!o Lurdeko Jaun Apezpikuak aldiz etzakiguo zontab, soma bat handia, Em- peradoe berari, chede bereko; apez ha- nitz, gerla berek pitz-arazi ondoan, hor harat joanak dirala, hilak buluziz, ar- roatuz, ituztenak ebatsiz gerlan hilik lurrean etzanek diren lagueri, beren sakelen bertzeteko direla joanak ger- larat, eta ez herriaren beiratzeko ale- manaren kontra!

Astokeria ala urdekeria da handienik hola mintzo zaitzen gizonen barnean? Biak bardintsu, edo zoin handiago.

Maisons Recommandées

BAYONNE

BANDAGISTE-GOUTELIER : Girai, Lesser, toi, sr. 5, rue Argenterie.
BIJOUTERIE : Articles de religion, Di- harce 3, rue Argenterie.
CHARBONS ANGLAIS : Worms et Cie, ar- mateurs, 8, Allées Bouffées.
CHAUSSURES : Lorda, 17, rue Port-le- Castets.
CHIRURGIEN-DENTISTE : Iratxe, Cante- ro, 1, rue Poissonnerie, face aux Halles.
EPICERIE : Latsague, Pernot, sucr., rue des Halles, 3 et 5.
GRANDS MACASINS du PRINTEMPS, rues Port-Neuf et Gambetta.
MEUBLES : Maison Cassiau, 2, Quai Galu- perie.
QUINCAILLERIE : A. Soulard, rue Argen- terie.
TIMBRES-PRIMES de l'Union Bayonnaise et Régionale à réclamer dans toutes les Epiceries.
VINS ET SPIRITUEUX : Graclet, rues Sa- batière et Vieille Boucherie.

CREDIT LYONNAIS

Baionan Libertateko Plazan

Crédit Lyonnais Hartzen eta Pagatzen ditu

AMERIKETAKO CHEKAK

eta Paper suerte guziak.
Saltzen eta erosten ere ditut Paper eta titulu suerte guziak.

Crédit Lyonnais emaiten ditut publikoari behar dituen argitasun guziak tituluen osten- gainean bai eta ere kontseilu hoberean dirau ongi pausatzeko.

BADA JAUN ESKUALDUN BAT

Kredit Lioneko emleatua, gauza hortaz lare- ziki kargatua dena.

AMERIKETARAT

Ameriketarat joan nahi dena, BARBIER, Doniane Garazikoari adreza dadila. Ageri d'émigration bezala ezagutua da Gobernioaz. Eta nola, egun guziek behar baitu Bordelerat bere komisioentzat, unistatino lagunduko edo laguntzarako dituen nausiantik.

Union Bayonnaise et Régionale

DELAKOAREN

TIMBREA

Aurthen ez dute Baionako botigesek estreinarik emaiten, bainan ba timbrek, iragan urthean bezala.

Hori zuzen da. Erosleak hola gehi- chago timbre biltzen du, eta arabera gehi- chago prima ukhaiten.

« Union Régionale Bayonnaise » hor- rek baitu emanak jadanik bi mila pri- ma baino gehiago.

Heien gozatzaleak oro kontent: egun- daino ez dutela ukan holako presentik. Galdazazue beraz orok timbre chiffe hori. Guzien abantailatan izanen da.



Dépôt de primes et Magasin d'Exposition
ENTREE LIBRE - 20, rue d'Espagne, 20 - ENTREE LIBRE

BAYONNE

BIARRITZ, Epicerie Labéguerie, avenue des Pyrénées; Epicerie Lassalle, rue

Chemin de Piche.

HASPARREN, chez M. Ingres, pâtissier,

rue Neuve.